

San Telmo Museoak bere proposamen didaktikoa berritu du bisita esperientzialekin: museoak sentitzea, gozatzea, amestea eta bizitzea

Helburu nagusia da museoak ikastetxeentzako baliabideen, ezagueren eta bizi- eta zentzumen-esperientzien iturri gisa duen papera indartzea

San Telmo Museoak bere programa berritua aurkezten du, bisitaren izaera esperientziala azpimarratzen duen programa. Hezkuntza-eskaintza berri honekin, ezaguera historiko edo artistikoak eskuratzeaz haratago joango da museorako bisita, eta museoaren bilduma balioan jartzea ahalbidetuko du, betiere gogoetarako eta gure historia, izaera eta gizarte gisa izan dugun bilakaera ulertzeko baliabide gisa. Hori horrela, San Telmo Museoaren programa didaktikoa museoaren beraren izaerarekin lerrotatuko da argiago, euskal gizartearen museo gisa, hain zuzen ere.

Museoaren berrinaugurazioari begira, hezkuntza arautuko eta arautu gabeko eskola-ikasleen talde guztien premia eta errealitateetara egokitutako eskaintza sortu zuen museoaren Hezkuntza Sailak. Abiapuntutzat erakusketa iraunkorra hartuta, museoak jada bazeukan eskaintza zabala ikasketa-maila guztientzat, euskal gizartearen gai askotarikoetan murgiltzeko aukera eskainiz. Eskaintza hori zabalduz, egokituz eta hobetuz joan da, museoak eta haren bilduma ezagutzeko bisiten katalogoa proposatuta. 2017-2018 ikasturterako jada abiaraziko den pauso berri horrekin, museoak bisitatzeko modu berri eta desberdinak ere planteatzen dira, ikasleen esperientzia ahaztezina izan dadin.

Filosofia berri bat, goiburua berri bat

San Telmo Museoaren programa didaktikoa bisita esperientziala ardatz gisa hartuta berritu da. Bizipenak, sentimenak, aurkikuntza, gertaerak modu konstruktibistan ulertzea eta norberaren ideiak adieraztea, elementu horiek guztiek egiten dute probetxugarri San Telmo Museorako bisita, eta batez ere, gogoratzeko moduko bisita izatea.

Filosofia berri hori, lau hitz edo goiburutan gauzatzen da, hezkuntza maila bakoitzerako bat eskainiz:

- Haur Hezkuntza – MUSEOA SENTITU - “Hauxe sentitu, hauxe kontatu”
- Lehen Hezkuntza – MUSEOA GOZATU - “Hura ikusi, hau ikasi; hura sentitu, hauxe kontatu”
- Bigarren Hezkuntza – MUSEOA AMESTU - “Hura ikusi, hauxe pentsatu, hauxe adierazi”
- Batxilergoa eta helduentzako hezkuntza – MUSEOA BIZI - “Hura ikusi, hauxe bizi, hauxe pentsatu”

Programa didaktikoaren berritzea lau helbururen gainean egin da:

1) San Telmo Museoak nahi du ikastetxeek museoa baliabide baliagarri gisa ikus dezatela, betiere eskueran izango dutena beren helburu akademikoak lortzeko, ia nahitaez bertara joan beharreko lekua. Museoaren bilduma, baliabideak, eskaintzen dituen posibilitateak eta ikastetxe bakoitzaren premietara egokitzeko duen aukera kontuan izanda, San Telmo Museorako bisitak beharrezkoa den guztia eskaintzen du ikastetxeek hori kontuan izan dezaten beren jarduerak programatzeko garaian.

2) San Telmo Museorako bisita esperientzia ludiko eta hezigarri gisa hartu behar dute ikasleek, ez aisiatxango soil bat bezala.

3) Hezkuntza-programaren berritzea curriculumeko helburu eta eduki ofizialetan oinarritu da. Ikastetxeek helburu eta edukiak euskal curriculum erkidetik abiatuta lortu beharrak ikastetxe horiek helburu eta eduki horiekin lerrokatutako jarduerak bilatzearagiten du. San Telmo curriculum horretan oinarritu da bisitak eta jarduerak garatzeko garaian.

4) Ikastetxeek ere Museoen Museo gisa ulertu behar dute San Telmo. Bere edukiak eta antolamendua kontuan izanda, aurrerapausoak emateko bidea da San Telmo Museoa Gipuzkoako gainerako museoentzat. Horregatik, bisitak eta jarduerak diseinatzean kontuan izan behar da bisita eta jarduera horien helburuen artean zera egotea, bisitan parte hartzen dutenek San Telmo Museora zein Gipuzkoako eta gure inguruneko beste edozein zentrotara itzuli nahi izatea lortzea. Museoen etorkizuneko erabiltzaileak sortu nahi ditugu.

Proposamen didaktikoa antolatzeko modu berria

San Telmo Museoaren jardura didaktikoen katalogoa bi taldetan banatu da. Lehena ikasturte honetan nobedade gisa aurkeztutakoa da; izaera esperientziala azpimarratzen du eta museoko bilduma iraunkorra bere osotasunean hartzen du baliabide gisa hezkuntza-ziklo bakoitzerako helburuei dagozkien bisita eta jarduerak sortzeko. Jardueren bigarren taldea, aldiz, gai zehatzago eta espezifikoagoak ukitzen dituzten bisita edo baliabide tematikoek osatzen dute; orain arte jada eskaintzen ziren bisita eta tailerrak dira, gehienak oraindik ere atxikitzen direlarik.

Jardura guztiak birmoldatu egin dira, jardura horiek erabiltzaileei egokituta gaien, edukien eta premien arabera. Zehazki, 2017-2018 ikasturteko hezkuntza-eskaintzak ondoren zehazten diren programa hauek bilduko ditu:

San Telmo Museoaren jarduera berriak, alderdi esperientzian oinarritutakoak:

Haur Hezkuntza – MUSEOA SENTITU

- Hemen altxorak daude!

San Telmo Museoan aurkituko ditugun zenbait altxor ikusi eta aztertuko ditugu, gure bost zentzumenak erabilia. Museoa oso hurbiletik ezagutzeko aukera paregabea izango dute ikasleek. Ikusitakoaz jabetu ondoren, trebetasun artistikoak garatuko ditugu ikasi duguna irudikatzeko.

Lehen Hezkuntza – MUSEOA GOZATU

Lehen zikloa

- Uretara!

Gipuzkoarrok itsasoarekin erlazionatutako historia zabala dugu: hondartzak, arrantzaleak, portuak, itsasontziak... Itsasoa gure etxeko atarian izateak nola baldintzatu gaituen ikusiko dugu eta ikasleek egunero ikus dezaketen elementu honek zer-nolako aldaketak sortu dizkigun ikusiko dute.

- Hi bai artista!

San Telmo Museoak Arte Ederretako bilduma bikaina du eta bilduma honetako koadro eta artelanak erakutsi nahi dizkiegu ikasleei. Pertsonaiak identifikatu egingo ditugu eta ondoren, beren gertaera edo bizitzako momenturen bat irudikatzeko eskatuko diegu ikasleei.

Bigarren zikloa

- Eraikitza!

Etxea seguru eta eroso egoteko leku bat da baina proposamen honen bidez, ikasleek etxe eta eraikuntzak ez direla beti horrelakoak izan ikusiko dute. Hainbat eraikuntza tipologia ezagutuko ditugu eta gure herrirak propio bat sortuko dugu.

- Nahastera!

Gure bi begiek mundua ikusteko gai gara. Baina, koloreak nondik ateratzen dira? Zergatik ikusten ditugu? Zenbat kolore daude? Nola sortzen dira? Arte Ederretako bildumaren bitartez galdera hauek guztiak erantzuten saiatuko gara eta ondoren, koloreekin jolastu eta esperimendatuko dugu gure tailer-gelan.

Hirugarren zikloa

- Abenturara!

Gipuzkoarrok itsasoa muga baino, ate bat bezala ikusi eta sentitu dugu historian zehar. Famatuak dira gure lurraldea “zabaltzen” lagundu duten gipuzkoarrek eta hauek denek mapen eta kartografiaren laguntza izan dute beraien abenturarako. Guk ere, ikasleei abentura propio bat proposatu nahi diegu.

- Forma ematera!

Jarduera honetan eskultura izango da gure gaia eta Museoak duen bilduma aztertuko dugu. Nola sortzen da eskultura bat? Denak berdina dira? Zein material erabiltzen dira? Eskultura bat materialak kenduz edo jarritik sortzen dela ikusi eta gero, zergatik ikasle bakoitzak ez du bere eskultura propioa sortzen?

Bigarren hezkuntza – MUSEOA AMESTU

Lehen zikloa

- Gipuzkoa eratuz

Ikasleei Gipuzkoa nola “sortu” zen erakutsiko diegu jarduera honetan eta Erdi Aroko jauntxoaren eta hiribilduen arteko gatazketatik nola sortu ginen ikusiko dute. Ondoren, gure herriak identifikatzeko erabiltzen ditugun armariak aztertu eta ikasle bakoitzari berea sortzeko erronka planteatuko diegu.

- Eman zure aurpegia

Jarduera honen bidez, ikasleek artearen historian gizakiak irudikatzeko izan diren estilo eta era desberdinak aztertuko dituzte. Gizakion irudia filosofiarekin, pentsamenduekin eta historiako gertaerekin modu desberdinetara irudikatu dela ikusiko dute. Tailer-gelan, erretratu bat irudikatzeko erronka planteatuko diegu, bakoitzaren estilo eta artea azalertzeko asmoarekin.

Bigarren hezkuntza – MUSEOA AMESTU

Bigarren zikloa

- Gipuzkoa eraldatuz

Absolutismoarekin lotutako Antzinako Erregimenetik, Erregimen Modernora modu gatazkatsuan pasa ginen eta azkeneko bi mendeetako aldaketa bortitz eta gogorak nolakoak izan diren ikusiko dugu jardura honetan. Tailer-gelan, ikasleei parlamentu propio bat sortzeko eskatuko diegu eta historiako ideia eta izaera politiko desberdinak kontuan hartuz, beren konstituzio edo araudi propioa sortuko dute.

- Ideiak marraztu

San Telmoko elizan dauden Sert-en mihiseak izango dira bisitaren ardatz. Hogeigarren mendearen hasierako artelan hauek, orduko pentsaera eta ideia abstraktuak irudikatzen dutela ikusi eta aztertuko dute. Mihise hauen bitartez, ideia abstraktuak irudikatzeko moduak aztertuko ditugu. Tailer-gelan, ikasleei ideia abstraktuen alegoriak erakutsi eta bakoitzak ideia abstraktu bat irudikatu beharko du.

Batxilergoa eta helduentzako hezkuntza – MUSEOA BIZI

- Denbora-lerroa

Jardura honetan XIX. eta XX. mendeetan euskal gizartearen gertatutako aldaketa nagusiak aztertuko ditugu. Tailer-gelan, ikasleei denbora eta espazioa batzen dituen lerro batean, hainbat gertaera historiko kokatzeko eskaera egingo diegu. Honela, modu grafiko batean, momentu berean baina leku desberdinetan gertatutakoa ikusi ahal izango dute.

- Historiaren artea

Arte Ederretako bildumako bisitan XV. mendetik XIX. mendera bitarteko ibilbide kronologikoa egiten da. Hartara, artearen historian funtsezko garrantzia izan zuten egileak ikusiko ditugu baina estilo artistikoek historian zehar izan duten bilakaera ezagutzeko aukera ere izanik. Eta tailer moduan, collage teknika erabiliko dute ikasleek artearen garai desberdinak adierazteko.

Eta ibilbide tematiko moduan honako hauek jarraitzen dute:

Haur Hezkuntza

- Chillidarekin dantzan

Eduardo Chillida eskultorea eta haren obra ezagutuko dugu dantza eta musikaren bidez. Etxeko txikiak beraien irudimena askatu beharko dute.

Lehen Hezkuntza

Lehen zikloa

- Museo bat, hamaika kontu

Museoko ibilbide orokor honetako hainbat objektuekin jolasean ibiliko gara bertan dauden istorioak ezagutzeko. Museoa ezagutzeko modu desberdina.

- Baserria

Landaguneko lanbideen bitartez baserri girora egindako hurbilpena. Baserriaren inguruan dauden elementu, ohitura, objektu eta bizitza ezagutzeko aukera paregabea.

- Urgull

Urgull Mendia eta Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera lantzeko programak

- **Mozorro tailerra:** Garai ezberdinetako pertsonaien bitartez Donostiako historia lantzeko ibilbidea, taldea marrazkiak eta mozerroak erabiliz.
- **Nor da?:** Donostiaren historia 6 puzzletan laburtuta dago. Bertan azaltzen diren irudiak erakusketaren atal bati lotu beharko diogu.
- **Urgull Mendia ezagutuz. Gynkana:** Urgull mendiko hainbat tokitan Donostiaren historiarekin nolabaiteko lotura duen hamaika froga egingo dugu.

Bigarren zikloa

- Alakiketan

Ibilbide honetan mundu tradizionalaren deskubrimendua egiten da gure herrietako plazetan entzun dezakegun musikaren bidez. Entzun, ikusi eta ezagutu!

San Telmo Museoa

- **Xoxo beltza San Telmon**

Ibilbide honetan Museoan dauden hainbat elementurekin heriotzaren fenomenoaren erritoetarako hurbilpena egiten da.

- **Artearekin jolasean**

Umeak artearen mundura hurbiltzeko tailer ludiko-didaktikoa da hau, Arte Ederretako bilduma abiapuntutzat harturik.

- **Urgull**

Urgull Mendia eta Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera lantzeko programak

- **Mozorro tailerra:** Garai ezberdinetako pertsonaien bitartez Donostiako historia lantzeko ibilbidea, taldeka marrazkiak eta mozorroak erabiliz.
- **Nor da?:** Donostiaren historia 6 puzzletan laburtuta dago. Bertan azaltzen diren irudiak erakusketaren atal bati lotu beharko diogu.
- **Urgull Mendia ezagutuz. Gynkana:** Urgull mendiko hainbat tokitan Donostiaren historiarekin nolabaiteko lotura duen hamaika froga egingo dugu.
- **Bazen behin... Donostia:** Garai ezberdinetako eszenak aukeratu eta birsortuko ditugu, besteak beste, balearen ehiza, XV-XVI mendeko Donostiako kalea eta udaldiko irudiak. Sortutako dioramek donostiarren eguneroko bizitzaren berri emango digute.

Hirugarren zikloa

- **Aztarnak oroimenean**

Museoko ibilbide orokor bat da hau, historiaurretik garai modernoan atariraino, euskal gizartea denboran zehar ezagutzeko.

- **Badugu, badago**

Museoan ditugun hainbat elementuren laguntzarekin, euskara, haren historia eta euskal hiztunena hobeto ulertzeko ibilbidea proposatzen da hemen.

- **Kalejirak**

Museotik kanpoko jarduera. Ibilbide tematikoak Donostiako ondare eta historia bertatik bertara ezagutzeko.

- **Urgull**

Urgull Mendia eta Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera lantzeko programak

- **Bazen behin... Donostia:** Garai ezberdinetako eszenak aukeratu eta birsortuko ditugu, besteak beste, balearen ehiza, XV-XVI mendeko Donostiako kalea eta udaldiko irudiak. Sortutako dioramek donostiarren eguneroko bizitzaren berri emango digute.
- **Urgull Mendia ezagutuz. Gynkana:** Urgull mendiko hainbat tokitan Donostiaren historiarekin nolabaiteko lotura duen hamaika froga egingo dugu.

Bigarren Hezkuntza

Lehen zikloa

- **Atzokoa gaur**

Historiaren ibilbide orokorra, XXI. mendeko ikuspegitik. Museoaren ardatzak dira jorratu beharreko gaiak: **iraganera begira, etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa.**

- **Erretratuak eta paisaiak**

Arte Ederretako ibilbide tematiko honetan XV.-XIX. mendeetako erretratuaren eta paisaiaren bilakaera garatzen da.

- **Urgull**

Urgull Mendia eta Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera lantzeko programak

- **Kakao bila goaz, ba al zatoz?:** Donostiako historiaren ekonomia lantzen duen jokoa, Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiaren koloniekiko merkataritza lantzen duena. Benetako bidaian gertatzen zen lege, hartutako erabakiek eta halabeharreak bidaian eragin zuzena izango du
- **Historiaren etxea bisita gidatua:** Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera ezagutzeko bisita gidatua, jatorrizko hirigunetik gaur egunerainoko gertakizunen errepaso egiten duena.
- **Urgull Mendia ezagutuz. Gynkana kulturala:** Urgull mendiko hainbat tokitan hamaika froga egingo dugu, batzuk matematikoak, besteak ingurunearekin lotura dutenak... oharkabea Donostiaren historia ezagutuz joango gara.

Bigarren zikloa

- **Isiltasunaren garaia**

Frankismoaren inguruko ibilbidea. Ia 40 urteko ibilbidea garaiko gizartea, ekonomia eta historia ezagutzeko.

- **Badugu, badago**

San Telmo Museoa

Euskara, haren historia eta euskal hiztunena hobeto ulertzeko ibilbide honen bidez, bisitariek euskararekin dituzten harreman motak agerrarazi nahi dira.

- Kalejirak

Museotik kanpoko jarduera. Ibilbide tematikoak Donostiako ondare eta historia bertatik bertara ezagutzeko.

- Urgull

Urgull Mendia eta Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera lantzeko programak

- **Historiaren etxea bisita gidatua:** Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera ezagutzeko bisita gidatua, jatorrizko hirigunetik gaur egunerainoko gertakizunen errepasoa egiten duena.
- **Urgull Mendia ezagutuz:** Mendiaren bilakaera historikoak Donostiaren historiaren arrastoak emango dizkigu. Hauek lantzeko ibilbidea.

Batxilergoa eta helduen hezkuntza

- Artea agerian

Teknologia berrien bitartez museoko hainbat artelanen gakoak topatuko ditugu. Gaur egungo teknologiek artea eta historia ezagutzeko aukera zabala eskaintzen dute.

- Zatoz zugana

San Telmo Museoa ezagutzeko ibilbide orokorra. Gaur egungo ikuspegitik begiraturako objektu historikoak, gure iragana eta gure oraina ulertzeko gako batzuk eskainiko ditugularik.

- Bertakoa eta unibertsala

Gainbegiraturua mundu garaikideari, erakustareto iraunkorretan barrena. Museoaren ardatzak dira jorratu beharreko gaiak: iraganera begira, etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa.

- San Telmoko arkitekturak.

San Telmo Museoa izan duen azkeneko zabalkuntzatik eratorritako ibilbide honetan eraikinari erreparatzen zaio batez ere.

- Urgull

Urgull Mendia eta Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera lantzeko programak

- **Historiaren etxea bisita gidatua:** Donostiako ondarea, historia eta gizartearen bilakaera ezagutzeko bisita gidatua, jatorrizko hirigunetik gaur egunerainoko gertakizunen errepasoa egiten duena.
- **Urgull Mendia ezagutuz:** Mendiaren bilakaera historikoak Donostiaren historiaren arrastoak emango dizkigu. Hauek lantzeko ibilbidea.

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko:

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián

Tel: (00 34) 943 48 15 61

stm_erreserbak@donostia.eus

www.santelmomuseoa.eus

San Telmo Museoa renueva su propuesta didáctica con visitas experienciales: sentir, disfrutar, soñar y vivir el museo

El objetivo principal es reforzar el papel del museo como fuente de recursos, conocimientos y experiencias vitales y sensoriales para los centros educativos

El Museo San Telmo presenta su renovado programa didáctico, que pone el énfasis en el **carácter experiencial de la visita**. Con esta nueva oferta educativa, la visita al museo irá más allá de la adquisición de conocimientos históricos y/o artísticos y permitirá poner en valor la colección del museo como recurso para la reflexión y el entendimiento de nuestra historia, carácter y evolución como sociedad. Con ello, el programa didáctico del Museo San Telmo pasa a alinearse más claramente con el carácter del mismo como museo de la sociedad vasca.

De cara a su reinauguración, el Departamento de Educación del museo creó una oferta adaptada a las necesidades y realidades de los diferentes grupos escolares de educación reglada y no reglada. Tomando como punto de partida la exposición permanente, el museo contaba con una amplia oferta para todos los niveles de estudio, ofreciendo la posibilidad de sumergirse en las variadas temáticas de la sociedad vasca. Esta oferta se ha ido ampliando, adaptando y mejorando, proponiendo un catálogo de visitas para conocer el museo y su colección. Con este nuevo paso que se pone en marcha ya en el curso escolar 2017-2018, se plantean además nuevas y diferentes maneras de visitar el museo, para que la experiencia del alumnado resulte inolvidable.

Una nueva filosofía, un nuevo lema

El programa didáctico del Museo San Telmo **se ha renovado tomando como eje la visita experiencial**. Las vivencias, los sentidos, el descubrimiento, entender los hechos de manera constructivista y expresar las propias ideas hacen que la visita al Museo San Telmo sea provechosa y, sobre todo, **recordada**.

Esta nueva filosofía, se plasma en cuatro palabras o lemas, uno para cada nivel educativo:

- Educación Infantil - **SENTIR EL MUSEO** - “Cuento lo que siento”
- Educación Primaria - **DISFRUTAR EL MUSEO** - “Aprendo lo que veo, cuento lo que siento”
- Educación secundaria - **SOÑAR EL MUSEO** - “Pienso y expreso lo que veo”
- Bachiller y educación para adultos - **VIVIR EL MUSEO** - “Lo veo, lo vivo, y esto es lo que pienso”

La renovación del programa didáctico se ha realizado sobre cuatro objetivos:

- 1) El Museo San Telmo quiere que los centros educativos vean el museo como un recurso útil y a su disposición para conseguir sus objetivos académicos, un lugar al que es casi obligatorio venir. Por su colección, por sus recursos, por sus posibilidades y por la opción de adaptación a las necesidades de cada centro, la visita a San Telmo Museoa **ofrece todo lo necesario para que los centros educativos lo tengan en cuenta a la hora de programar sus actividades.**
- 2) La visita al Museo San Telmo ha de ser tomada por parte de los/as alumnos/as como una **experiencia lúdica y educativa**, no como una mera excursión de ocio.
- 3) **La renovación del programa educativo se ha basado en los objetivos y contenidos curriculares oficiales.** La obligatoriedad por parte de los centros escolares de alcanzar objetivos y contenidos desde el curriculum común vasco hace que los centros busquen actividades que estén alineadas con los mismos. San Telmo se ha basado en dicho curriculum a la hora de diseñar las visitas y actividades.
- 4) Los centros educativos también han de entender San Telmo como Museo de Museos. Por sus contenidos y ordenación, el Museo San Telmo sirve de trampolín para el resto de Museos de Gipuzkoa. Por ello, las visitas y actividades han de ser diseñadas incluyendo entre sus objetivos es de **conseguir que quienes participan en la visita quieran volver** tanto al Museo San Telmo como a cualquier otro centro de Gipuzkoa y de nuestro entorno. Queremos crear futuros/as usuarios/as de museos.

Nueva manera de ordenar la propuesta didáctica

El catálogo de actividades didácticas del Museo San Telmo se ha dividido en dos grupos. El primero es el que se presenta como novedad este curso; subraya el carácter experiencial y toma la colección permanente del museo en su integridad como recurso para crear visitas y actividades que corresponden con los objetivos para cada ciclo educativo. El segundo grupo de actividades, en cambio, son visitas o recorridos temáticos que tocan temas más concretos y específicos; son las visitas y talleres que ya se ofrecían hasta ahora y que se mantienen en su mayor parte.

Todas las actividades se han remodelado adaptándolas a sus usuarios/as por temas, contenidos y necesidades. En concreto, la oferta educativa del curso escolar 2017-2018 constará de los programas detallados a continuación:

Las nuevas actividades del Museo San Telmo, basadas en lo experiencial:

Educación Infantil – SENTIR EL MUSEO

- ¡Aquí hay tesoros!

Veremos y analizaremos diversos tesoros que encontraremos en el Museo San Telmo utilizando nuestros cinco sentidos. El alumnado tendrá una magnífica ocasión de conocer el museo desde muy de cerca. Tras asimilar lo que hemos visto, desarrollaremos las habilidades artísticas para representar lo que hemos aprendido.

Educación Primaria – DISFRUTAR EL MUSEO

Primer ciclo

- ¡Al agua!

Los/as guipuzcoanos/as tenemos una amplia historia relacionada con el mar: playas, pescadores, puertos, barcos... Veremos de qué manera nos ha condicionado tener el mar a las puertas de casa, y las y los alumnos verán qué cambios nos ha traído este elemento que pueden contemplar a diario.

- ¡Tú también eres artista!

El Museo San Telmo cuenta con una magnífica colección de Bellas Artes y queremos mostrar a nuestras alumnas y alumnos cuadros y obras artísticas incluidas en ella. Identificaremos personajes y posteriormente las y los alumnos representarán un suceso o un momento de sus vidas.

Segundo ciclo

- ¡A construir!

La casa es un lugar que nos proporciona seguridad y comodidad, pero mediante esta propuesta el alumnado aprenderá que las casas y los edificios no han sido siempre así. Conoceremos diversas tipologías de construcción y crearemos nuestra propia aldea.

- ¡A mezclar!

Somos capaces de ver el mundo con nuestros ojos. Pero, ¿de dónde salen los colores? ¿Por qué los vemos? ¿Cuántos colores hay? ¿Cómo surgen? Mediante la colección de Bellas Artes intentaremos responder a todas estas preguntas y posteriormente jugaremos y experimentaremos con los colores en nuestra sala taller.

Tercer ciclo

- ¡A la aventura!

Los/as guipuzcoanos/as hemos visto y sentido el mar más como una puerta que como una frontera. Son famosos los guipuzcoanos que han ayudado a “expandir” nuestro territorio, y todos ellos han contado con la ayuda de los mapas y de la cartografía. Nosotros también queremos proponerles a nuestras alumnas y alumnos una aventura propia.

- ¡A darle forma!

En esta actividad nuestro tema será la escultura y analizaremos la colección que tiene el museo. ¿Cómo se crea una escultura? ¿Son todas iguales? ¿Qué materiales se utilizan? Después de contemplar que las esculturas se crean añadiendo o retirando materiales, ¿por qué no crea cada estudiante su propia escultura?

Educación secundaria – SOÑAR EL MUSEO

Primer ciclo

- Formando Gipuzkoa

En esta actividad, enseñaremos al alumnado cómo se “creó” Gipuzkoa tras los conflictos ocurridos entre los señores de la Edad Media y las villas. Posteriormente, estudiaremos los escudos que utilizamos para identificar nuestros pueblos y nos plantearemos el reto de crear uno propio.

- Ponle tu cara

Mediante esta actividad, el alumnado estudiará los diferentes estilos y modos de representar al ser humano que ha habido a lo largo de la historia. Verán que la imagen de los humanos se ha representado de diferentes maneras con la filosofía, el pensamiento y los acontecimientos históricos. En la sala taller, les plantearemos el reto de representar un retrato, con el objetivo de que aflore el estilo y el arte de cada cual.

- **Transformando Gipuzkoa**

Pasamos de manera conflictiva del Antiguo Régimen vinculado al absolutismo al Régimen Moderno, y en esta actividad veremos cómo han sido esas violentas y severas transformaciones de los últimos dos siglos. En la sala taller, pediremos a las y los alumnos que creen su propio parlamento, y teniendo en cuenta las diferentes ideas y caracteres políticos de la historia, crearán su propia constitución o normativa.

- **Dibujando ideas**

El hilo conductor de la visita lo constituirán los lienzos de Sert que hay en la iglesia de San Telmo. Verán y estudiarán que estas obras de principios del siglo veinte representan el pensamiento de la época y las ideas abstractas. Mediante esos lienzos se analizarán los modos de representar las ideas abstractas. En la sala taller, mostraremos alegorías de ideas abstractas al alumnado, y cada cual deberá representar una idea abstracta.

Bachiller y educación para adultos – VIVIR EL MUSEO

- **Líneas del tiempo**

En esta actividad, analizaremos los principales cambios ocurridos en la sociedad vasca en los siglos XIX y XX. En la sala taller, en una línea que une espacio y tiempo, solicitaremos a las y los alumnos que sitúen en ella diversos acontecimientos históricos. Así, de manera gráfica, podremos ver lo que ha ocurrido en el mismo momento pero en diferentes lugares.

- **El arte de la historia**

En la visita de la colección de Bellas Artes se realizará un recorrido cronológico entre el siglo XV y el XIX. Así, veremos a los autores que han tenido una importancia fundamental en la historia del arte, pero teniendo también la ocasión de conocer la evolución que han tenido a lo largo de la historia. Y como actividad de taller, las y los alumnos utilizarán la técnica collage para expresar las diferentes épocas del arte.

Y como recorridos temáticos, se mantienen:

Educación Infantil

- **Bailando con Chillida**

Conoceremos al escultor Eduardo Chillida y su obra mediante la danza y la música. Las y los más pequeños de la casa deberán de liberar su imaginación.

Educación Primaria

Primer ciclo

- **Un museo, mil historias**

Jugaremos con diversos objetos de este recorrido general del museo para conocer las diferentes historias que guarda. Otro modo de conocer el museo.

- **El caserío**

Aproximación al ambiente del caserío mediante los oficios rurales. Magnífica ocasión para conocer los elementos, las costumbres, los objetos y la vida que hay en torno al caserío.

- **Urgull**

Acercamiento al Monte Urgull y al patrimonio, historia y evolución de la sociedad de nuestra ciudad

- **Taller de disfraces:** El grupo trabajará la historia de Donostia a través de la realización de 6 caretas de personajes que representan diferentes épocas de la ciudad
- **¿Quién es?:** La historia de San Sebastián resumida en 6 puzles que el grupo tendrá que hacer y buscar la correspondiente imagen en la exposición
- **Conociendo el Monte Urgull. Gynkana:** El grupo debe superar una serie de pruebas al aire libre en diferentes puntos del monte relacionados con la historia de Donostia

Segundo ciclo

- **Alakiketan**

En este recorrido se descubre el mundo tradicional mediante la música que puede escucharse en las plazas de nuestros pueblos. ¡Escucha, ve y conoce!

- **Xoxo beltza en San Telmo**

En este recorrido se realiza una aproximación a los ritos del fenómeno de la muerte con diversos elementos existentes en el museo.

- **Jugando con el arte**

Este es un taller lúdico-didáctico para acercar a las niñas y niños al mundo del arte, tomando como punto de partida la colección de Bellas Artes.

- **Urgull**

Acercamiento al Monte Urgull y al patrimonio, historia y evolución de la sociedad de nuestra ciudad

- **Taller de disfraces:** El grupo trabajará la historia de Donostia a través de la realización de 6 caretas de personajes que representan diferentes épocas de la ciudad.
- **¿Quién es?:** La historia de San Sebastián resumida en 6 puzles que el grupo tendrá que hacer y buscar la correspondiente imagen en la exposición.
- **Conociendo el Monte Urgull. Gynkana:** El grupo debe superar una serie de pruebas al aire libre en diferentes puntos del monte relacionados con la historia de Donostia
- **Érase una vez... San Sebastián:** Taller de dioramas en el que el grupo creará cinco escenarios para conocer cómo es la vida cotidiana en Donostia desde la Edad Media hasta nuestros días

Tercer ciclo

- **Huellas en la memoria**

Se trata de un recorrido general del museo, que va desde la prehistoria hasta los inicios de los tiempos modernos.

- **Badugu, badago**

Con la ayuda de diversos elementos con los que contamos en el museo, se propone aquí un recorrido para comprender mejor el euskera, su historia y las de sus hablantes.

- **Kalejiras**

Actividad que se lleva a cabo fuera del museo. Recorridos temáticos para conocer de cerca el patrimonio y la historia de San Sebastián.

- **Urgull**

Acercamiento al Monte Urgull y al patrimonio, historia y evolución de la sociedad de nuestra ciudad

- **Érase una vez San Sebastián:** Taller de dioramas en el que el grupo creará cinco escenarios para conocer cómo es la vida cotidiana en Donostia desde la Edad Media hasta nuestros días
- **Conociendo el Monte Urgull. Gynkana:** El grupo debe superar una serie de pruebas al aire libre en diferentes puntos del monte relacionados con la historia de Donostia.

Educación Secundaria

Primer ciclo

- **Ayer y hoy**

Recorrido general de la historia, desde la perspectiva del siglo XXI. Los temas que se deben analizar son el **hilo conductor del museo: el objetivo no es otro que mirar al pasado para alcanzar los retos del futuro.**

- **Retratos y paisajes**

En este recorrido temático de Bellas Artes se desarrollan la evolución del retrato y del paisaje entre los siglos XV-XIX.

- **Urgull**

Acercamiento al Monte Urgull y al patrimonio, historia y evolución de la sociedad de nuestra ciudad

- **Vamos a por cacao, ¿te enrolas grumete?:** Juego de mesa que trabaja la historia económica de Donostia a través de los viajes de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas. Como en los viajes reales el azar y las decisiones del grupo influirán en el desarrollo del viaje
- **Visita guiada a la exposición de la Casa de la Historia** Recorrido por la historia de Donostia. Partimos del núcleo de población a los pies del monte Urgull hasta de hoy en día, haciendo hincapié en los hitos históricos de nuestra ciudad

- **Conociendo el Monte Urgull. Gynkana cultural:** El grupo debe superar una serie de pruebas en diferentes puntos del monte. Una mezcla de pruebas matemáticas, de conocimiento del medio... harán que el grupo vaya conociendo la historia de Donostia sin darse cuenta

Segundo ciclo

- **El recorrido del silencio**

Recorrido en torno al franquismo. Un recorrido de casi 40 años a través de la sociedad, la economía y la historia de la época.

- **Badugu, badago**

Mediante este recorrido para comprender mejor el euskera, su historia y la de sus hablantes, se pretende mostrar las relaciones que tienen las y los visitantes con el euskera.

- **Kalejiras**

Actividad que se lleva a cabo fuera del museo. Recorridos temáticos para conocer de cerca el patrimonio y la historia de San Sebastián.

- **Urgull**

Acercamiento al Monte Urgull y al patrimonio, historia y evolución de la sociedad de nuestra ciudad

- **Visita guiada a la exposición de la Casa de la Historia** Recorrido por la historia de Donostia. Partimos del núcleo de población a los pies del monte Urgull hasta de hoy en día, haciendo hincapié en los hitos históricos de nuestra ciudad
- **Conociendo el Monte Urgull:** Visita guiada al monte Urgull A través del monte y sus construcciones el grupo conocerá la historia de Donostia

Bachiller y educación para adultos

- **El arte al descubierto**

Encontraremos las claves de diversas obras de arte mediante las nuevas tecnologías. Las tecnologías actuales ofrecen una amplia oportunidad para conocer el arte y la historia.

- **Ven a vernos**

Recorrido general para conocer el Museo San Telmo. Objetos históricos contemplados desde la óptica actual, a la vez que ofrecemos algunas claves para conocer nuestro pasado y nuestro presente.

- **Local y universal**

Una ojeada al mundo contemporáneo, a través de las salas de exposición permanentes. Los temas que se deben analizar son el hilo conductor del museo: el objetivo no es otro que mirar al pasado para alcanzar los retos del futuro.

- **Arquitecturas de San Telmo**

En este recorrido, producto de la reciente ampliación del Museo San Telmo, nos fijamos especialmente en el edificio.

- **Urgull**

Acercamiento al Monte Urgull y al patrimonio, historia y evolución de la sociedad de nuestra ciudad

- **Visita guiada a la exposición de la Casa de la Historia** Recorrido por la historia de Donostia. Partimos del núcleo de población a los pies del monte Urgull hasta de hoy en día, haciendo hincapié en los hitos históricos de nuestra ciudad
- **Conociendo el Monte Urgull:** Visita guiada al monte Urgull A través del monte y sus construcciones el grupo conocerá la historia de Donostia

Para más información y reservas

Museo San Telmo

Zuloaga Plaza, 1 – 20003 Donostia/San Sebastián

Tel: (00 34) 943 48 15 61

Mail: stm_erreserbak@donostia.eus

www.santelmomuseoa.eus